

LEMOAKO UDALBATZA. 2020KO UZTAILAREN 1EKO OHIKO OSOKO BILKURA
8/2020 AKTA

Tokia	Eguna	Hasiera ordua	Amaiera ordua
Udalbatzaren aretoa (telematikoa)	2020ko uztailaren 1ean	19:00 (Lehenengo deialdia)	19:16
Bertaratuak			
Idazkaria Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa		Alkate-Udalburua Dña. Saioa Elejabarrieta Amorrortu and. (EH Bildu)	
		Zinegotziak Concejales Eukeni Bikarregi Uriarte (EH Bildu) Marian Garai Salutregi (EH Bildu) Aritz Undurraga Almaraz (EH Bildu) Ioritz Fernández García EH Bildu) D. Jon Andoni Pérez Bilbao jn. (EH Bildu) Iñigo Zuloaga López de Letona (EAJ-PNV) Esther Iturrioz Rementeria (EAJ-PNV) Urko Garamendi Meabe (EAJ-PNV) Joseba Iñaki Barrenetxea Iriondo jn. (EAJ-PNV) Dña Zuriñe Etxebarria Zuluaga and. (EAJ-PNV)	

1

 Ohiko osoko bilkura
 Pleno ordinario
 2020ko uztailaren 1a

Idazkariak beharrezko bertaratze-quoruma dagoela egiaztatu eta gero, Presidentetzak adierazi du Udaltzatuko osoko bilkura irekia dela, eta bilerak modu telematikoa egingo direla COVID-19 pandemiaren egoerak udaleko gobernu-organoen aurrez aurreko bilerak egitea eragozten duen bitartean. Bilkurari hasiera eman zaio, eta gai-zerrendan sartutako gaiak zerrendatu dira:

1. 2020ko ekainaren 3ko ohiko osoko bilkuraren eta ekainaren 11ko eta 15eko osoko bilkura berezien aktak onartzea.

Zuzenketa edo ekarpenik proposatu ez denez, ekainaren 3ko ohiko osoko bilkuraren akta eta ekainaren 11ko zein 15eko osoko bilkura berezien aktak onetsi dira.

2. Alkatetza Dekretuen berri ematea Lemoako Udalaren osoko bilkurari.

Jarraian, alkate andreak azken ohiko osoko bilkuratik aurrera emandako alkatetza-dekretuen edukiaren berri eman da eta zinegotziak jakinaren gainean geldatu dira.

3. Apaizetxearen aurrekontu-aldaketa eta obraren likidazioa.

Alkateak hitza hartu du adierazteko obra amaiera heltzen ari dela eta likidazio-txostena onartu behar dela, gaineratuz horretarako zinegotziek dituztela bi txosten bata teknikoa arkitektoarena, eta beste bat juridikoa idazkari kontu-hartzailearena. Bere egunean plenoak aho batez onartu zuen kreditu aldaketa bat egitea eta remanentetik hartzea obretako dirua eta hori islatu zen 2019ko aurrekontuan. Berrito zabaldu behar dugu partida hori erabili ez zelako 2019ko ekitaldi ekonomikoan. Falta zen zatia eta obraren inprebistoak jasotzen dira obraren aparejadorea eta udal arkitektoaren oniritziak. Txostenean banan bana datoz modifikazio ekonomikoak eta azalpenak. Ikusgai daude zer zertifikazioak pagatu diren eta zertifikazioak zenbatekoak izan diren.

Kreditu-aldaketaren gaineko botazioa egin da, honako emaitza honegaz:

Aurrekontu aldaketa egitearen alde kreditu-gaikuntza honen bidez: Bildu (6 boto).

Kontrako botoak: PNV-EAJ (5 boto).

Iñigo Zuloaga PNV-EAJren bozeramaileak adierazi du ezezko botoa eman dutela ados ez daudelako 1.200.000 euro gastatzeko Lemoarena izango ez den edifizio bategaz. Lelengotik ez zeudela oso ados eta gainera inkremento egon denez euren linea jarraituteko kontra botatu dutela.

Alkateak erantzun du hori ez dela izan PNVk hasieratik plenoan erakutsi duen linea, hasieran aldeko botoa eman zutelako, danok onartu genuelako obra egiteko dirua remanentetik hartzea.

Iñigo Zuloagak erantzun du miloi batetik miloi berrehunera beste 200.000 euro dagozela. Ezezkoa da euren erabaki 1.200.000 euro gastatzea delako munizipala ez den edifizio batean.

4. Biscaytik hitzarmen-markoa.

Alkateak hitza hartu du azaltzeko Udalak Biscaytik egaz lan egiten dauela web zerbitzuak eta plataforma digitala herritarrei eskaintzeko. Txostenean datoz zerbitzu guztiak, baita bakoitzaren azalpena ere Biscaytik hitzarmenpean. Biscaytiketik hitzarmen markoa proposatzen da urie zerbitzuak gaurkotzen joateko. Ez dauko ezer berririk hala ere, eta da hitzarmen bera berriro sinatzea.

Gai honi buruzko botazioa egin da, eta aho batez onartu dute zinegotzi guztiek.

5. 2020ko igerilekuen erregelamendua.

Alkateak adierazi du Lemoako kiroldegiak eta igerilekuek badutela euren erregelamendu propioak osoko bilkurak onartu dituenak, baina igerilekuak zabaldu ahal izateko beharrezkoa izan dela diseinatzea erregelamendu berri bat Kirlan enpresa eta bertako langileekin: ordutegi bereziak desinfekzioa egin ahal izateko, aurretizko zita hartzea, zelan jokatu behar dugun instalazioetan, gela, temperatura, distantziak gorde, kanpoko komunak erabiltzea. Araudiak ez du ezer aldatzen eta erregelamendu berezia da aurtengo, soilik 2 hilabete zabalduko dira hiru beharreen. Proposatzen da berau onartutea.

Zinegotzi guztiek adostasuna adierazi dute, beraz erregelamendu berria aho batez onartu da.

6. Eskaerak eta itaunak.

Azken puntua galderak eta itaunak izan da, eta ez da halakorik egon, inork ez baitzeukan ezer gehituteko.

Alkateak gogora ekarri du abuztuan ez dela plenorik egiten eta hurrengo plenoa irailean izango dela hirugarren astean. Udalerako Ikusiko bagendun beharrezkoa dela osoko bilkura berezi bat deituko dela eta bestela Iñigorekin mantenduko dela informazioa dena normal baldin badao.

Urko Garamendi Meabek galdetu dio alkateari iraileko osoko bilkura 23an edo 30ean izango zen.

Alkateak adierazi du berdin jarraituz gero pleno telematikoa segitu beharko dela egiten, Udaletxean distantzia nahikorik ez dagoelako segurtasun-distantzia mantentzeko. Presentziala egiteko aukera ikusiko balitz, ordea egin zitekeela adierazi du. Iraileko plenoa tokatzen da irailaren 16an baina hurrengo egunean konfirmatuko die zinegotziei. Hala ere kontaktuan egongo dira ziengotziak eskoletako hasierari begira.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera amaitutzat eman du 2020ko maiatzaren 6ko 19:16an, eta horren guztiaren fede ematen dut.

Ontzat emana
Saioa Elejabarrieta Amorrortu
Lemoako Alkatea



LEMOA

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Lemoako idazkaria